

## Muntaketari buruzko Tailer Praktikoa

**Kurtsoa: 4**

**Kreditu kop.: 21**

**Deskribatzaileak:**

- Muntaketari buruzko Tailer Praktikoa.
- Eszenifikazioaren printzipio orokorrak, antzezlearen lana oinarri hartuta.
- Eszenifikazio-prozesuaren faseak.
- Antzeppenaren metodologiak eta oinarrizko teknikak, praktikan, antzezlearen arlo desberdinetako prestakuntza eta lana bilduko duen antzerki-ikuskizun bat sortzeko.
- Eszenako antzeppen-sistemen tekniken erabilera.
- Egoeraren eta pertsonaiaren kontzepzioa eta azterketa.
- Aktoreek duten interakzioa gainerako hizkuntza dramatikoekin, espazioan zein denboran.
- Mugimendu eszenikoaren, testuaren, ahotsaren, ahots kantatuaren eta hizkuntza eta forma desberdinen kontzeptua eta azterketa, pieza artistiko bat praktikan jarri profesional baten edo batzuen gidaritzapean.

**Kompetentziak:**

Ikasleak gai izan behar du:

- Antzerki-ikuskizun baten burutzapena ezagutu eta esperimintatzea.
- Prozedurak identifikatzeko antzeppen-lanean.
- Sorkuntzaren prozesu artistiko globala esperimintatzeko, egiten den muntaketa-estiloari dagozkion eszenak pentsatuz, sortuz, entseatuz eta muntatuz.
- Eskuratutako hizkuntzak, prozedurak eta ezagutzak integratzea, sorkuntza eszenikoaren sentzazioak, emozioak eta zentzua ikusleari transmititu ahal izateko.
- Eszenifikazioaren kontzeptuak, prozedurak eta oinarrizko faseak ezagutu eta praktikan jartzea, ikuskizuna sortzean erabilitako hizkuntza desberdinetan arreta jarri.
- Hipotesi dramaturgiko, tekniko, etiko eta estetiko baten formulazio gisa ulertzeko eszenifikazioa, ikuslearekiko komunikatibo eta antzerki-ikuskizunaren sorkuntzan parte hartzen duten hainbat kolaboratzaileekiko dialektiko den prozesu baten barnean.
- Aktorearen lana aztertu, ezagutu eta praktikan jartzea, pertsonaiari, egoerari eta eszenari dagokienez eta ikuskizuna eraikitzen duen partaidetzari dagokienez.

**Ebaluazio-irizpideak:**

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

- Antzerki-pieza baten muntaketa-prozesua aztertzeko eta modu praktikoan ezagutzeko.
- Aktoreak eszenan egiten duen lana eta prozesu horretan erabiltzen dituen kontzeptuak, prozedurak eta oinarrizko faseak ezagutu eta ebaluatzeko.
- Hizkuntza eszeniko eta muntaia-teknika desberdinak ezagutzea prozesu praktikoetan.
- Entseguen eta lanaren etapa garrantzitsuenak identifikatzea zuzendaritza-eszenikoaren prozesuan laguntzen dutenekin.
- Eszenifikazioaren sorkuntza-prozesua eta horretan parte hartzen duten elementu esan-guratsuak aztertu eta ondo ulertzeko.
- Eszenifikazioa proposamen dramaturgiko, tekniko eta estetiko gisa ulertzeko, eta ebaluatzeko sorkuntzaren aldetik aktorea nola txertatzen den eszenifikazioan eta gainerako parte-hartzaileekin.
- Mugimendu eszenikoaren esanahia ezagutzea (jarrera, desplazamendua, erritmoa eta koreografia) eszenifikazio-forma desberdinetan.
- Talde artistiko eta tekniko baten integrazio prozesua ezagutzeko.

Irakasgaiaren irizpide espezifiko horiei irakasgaiari aplikatu dakizkiokeen kompetentzia orokorretatik, zeharkakoetatik eta espezifikoetatik eratorritakoak gehitu behar zaizkio, eta ikasgai guztietarako komunak diren irizpideak ere bai: bertaratzea, puntualtasuna eta ikasteko gogoia, kontzeptu teorikoak asimilatzeke eta praktikan jartzeko ahalmena, talde-lanean aritzeko gaitasuna eta eskolan jarrera proaktiboa izatea, baita aurkeztutako lanen kalitatea eta originaltasuna eta eskolako azalpenetan eta eztabaidetan izandako zehaztasuna, argitasuna eta xehetasuna. Proposatutako bibliografia ezagutzea eta erabiltzea.